



**Hiri
Hezitzaileen**
NAZIOARTEKO
ERAKUNDEA

ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA
Azaroak 30 - Hiri Hezitzailearen
Nazioarteko Eguna, 2021

“Hiri Hezitzaileak ez du inor atzean uzten”



Azken hamarkadetan, mundu globalizatu honetako hirigune askotan, areagotu egin dira desorekak. Hazkunde ekonomikoa eta garapen soziala ez dira modu parekatuan banatu, eta gero eta zatiketa eta segmentazio-prozesu handiagoak sortu dira hirietan. XXI. mendeko hirien ezaugarri den zatiketa horrek dimentsio ugari ditu: espaziala, soziala, ekonomikoa, politikoa, kulturala, digitala, harremanekin lotutakoa, belaunaldien artekoa, generoaren esparrukoa; eta hainbat modutara agertzen da munduko hiri eta udalerrietan. COVID-19aren pandemiak lehendik zauden desoreka horiek areagotu egin ditu, eta oztopo eta eragozpen berriak ekarri ditu ekitateari begira.

Desberdintasunak daude biztanleen artean, hiri-ondasunen gozamenean, espazio publikoaren erabileran nahiz gizarte, hezkuntza eta lan-munduan sartzeko beharrezko gaitasunak eskuratzeko orduan. Gizarte-bazterketarako forma zahar eta berriei aurre egiteko erronkaren aurrean, hezkuntza oinarri-oinarrizko zutabea da inklusioa sustatu eta gizarte-segregazioa saihesteko estrategien garapenean. Kultura-aldaketak eginarazteko gaitasuna duen prozesu gisa ageri da, halaber, hezkuntza, zenbait pertsona eta kolektibo estigmatizatzea eta baztertzea eragiten duten estereotipoak deseraikitzen lagunduko baitute aldaketa horiek, bai eta ikuspegi kritiko batekin desorekei eta horien eragile diren mendekotasunezko harremanei aurre egiten ere.

Hezkuntzaren ahalmen eraldatzailean uste osoa dugu **Hiri Hezitzaileok**, eta, beraz, politika proaktiboak eta prebentzio-izaerakoak abiarazi ditugu hiriotan, inklusioaren eta ekitatearen alde egiteko; horrez gain, bazterketaren arrazoieta sakontzeko proposamenak egin ditugu. Komunitatearengandik gertu gaudenez eta haren beharren berri badugunez, funtsezko eragileak gara desorekak eta abandonua sortzen dituzten espazio eta testuinguruak identifikatzeko eta kritikoki berrikusteko. Pandemiaren esparruan, Hiri Hezitzaileak malgutasunez, sormenez eta asertibotasunez ari gara lanean, gizartearen eta hezkuntzaren esparruetan azaleratzen joan diren beharrei erantzuteko, zaurgarritasun handieneko egoeretan dauden biztanleengan jarrita gure arreta bereziki.

Horregatik guztiagatik, honako goiburua aukeratu da Hiri Hezitzailearen Nazioarteko Egunaren 2021eko edizio honetarako: “**Hiri Hezitzaileak ez du inor atzean uzten**”; eta honako konpromiso hauek hartu ditugu:

Hiri Hezitzaileok konpromisoa hartu dugu dimentsio anitzeko erantzun berritzaileak artikulatzeko eta, horien bidez, gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzeko, herritar guzti-guztiontzat, inor bazterrean utzi gabe. Udal-sail eta herritarrei zuzendutako baliabide guztiak mobilizatuz, gizarte zibilarekin itunak

sortuz, parte hartzeko eta hausnartzeko prozedurak bultzatuz eta bizitza osoan zehar prestakuntza-aukerak eskainiz, batez ere gizartearen baztertuak izateko arrisku handiena duten kolektiboak erreparatuta.

Hiri Hezitzaileok apustu egin dugu hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko, eskola uztearen kontra borrokatzeko, hezkidetzak sustatzeko eta oro har herritarren hezkuntza-arrakastarako, desorekak murrizteko orduan ezinbesteko zeregina betetzen baitu eskolak. Izan ere, eskolak etengabe bere burua berrasmatu behar du, erronka berriei erantzun ahal izateko. Ildo beretik, zaintzen gaia ere barnean hartu dugu, pertsona orok bizitzako etapa guztietan osotasunean eta duintasunez garatzeko behar dituen babes-elementuak badituela bermatzeko.

Horrekin guztiarekin, segregaziorik eta oztopo fisiko eta mentalik gabeko udalerrira aske eta irisgarriak sortu nahi ditugu Hiri Hezitzaileok, hiriko biztanle guztiengana iritsiko direnak; askotariko pertsonak elkarrekin jarduteko aukera izango duten bizikidetzarako guneak sortu nahi ditugu.

(HIRIAREN IZENA) bat egin nahi du Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Eguneko ospakizunekin, eta konpromiso sendoa hartu dugu “**atzean inor ez uzteko**”.

